

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa. Onestea mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak foru egoitzetan aldi baterako egoteko zerbitzuaren erregulazioa, COVID-19 pandemiaren ondorioz titulartasun pribatuko egoitzak bideratutakoena, bai eta dagokion prezio publikoa ere**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta eta erantzukizun publikoko sare publiko antolatua dela. Sistema horretako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzea eskubide subjektiboa da, sistema horretara sartzeko baldintza orokorren eta prestazio edo zerbitzu bakoitza eskuratzeko arautzen diren baldintza espezifikoaren esparruaren barruan.

Gure gizartea COVID-19 birusak eragindako pandemiaren testuinguruan murgilduta dagoenez, pandemiaren ondorioak ahal den neurrian arintzeko neurriak hartu behar izan dira. Zehazki, titulartasun publikoko eta pribatuko egoitzek instalazioak, ekipamendua eta langileak egokitu behar dituzte, dituzten erabiltzaileei arreta egokia emateko. Baina titulartasun pribatuko egoitzen kasuan, hori ez da beti posible, eta, beraz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera jotzen dute erabiltzaileei aldi baterako harrera eskatzera, osasun agintariek emandako agindu eta jarraibideen arabera arreta emateko. Dekretu honek zerbitzu hori arautzen du.

Lege horren 54. artikulua arabera, zerbitzu berri hori – COVID-19aren pandemiari lotua – finantzatzeko, dagokion prezio publikoa ezarri eta jaso behar da. Eskuarki, erabiltzaileek ordaintzen dituzte prezio publikoak, baina kasu horretan, aipatutako pandemiaren testuinguruan erabiltzailearen jatorrizko egoitzak ordainduko du, hau da, erabiltzaileak jaso behar duen arreta espezifiko ezin eman eta arreta hori emateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera jotzen duen egoitzak.

Horregatik, Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean jarrita eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

#### XEDATZEN DUT

##### 1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak foru titulartasuneko egoitzetan aldi baterako egoteko zerbitzua sortzea, haiek titulartasun pribatuko egoitzetatik bideratzearen ondorioz. Egoitza pribatuak Gizarte Politiken Sailari eskaturiko lekualdaketa izango da eta sailak baimendutakoa, egoitza pribatuak ezintasun aitortua eta egiaztatua duelako aipatutako erabiltzailea bere instalazioetan artatzeko osasun agintariek COVID-19 birusaren izandako kutsatzei edo kutsatze posiblei dagokienez emandako araudi eta jarraibideek ezarritako moduan.

Halaber, foru dekretu honen xedea da aipatutako zerbitzuari dagokion prezio publikoa arautzea.

##### 2. artikulua. Prozedura

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari harrera egitea eskatzen dion titulartasun pribatuko egoitzaren legezko ordezkariak eskaera bat aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuari idazki arrazoitu baten bidez.

Hala badagokio, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak ebazpen bidez baimenduko du erabiltzailea foru titulartasuneko egoitza batera aldatzea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Ikuskaritza Zerbitzuak txostena egin ondoren.

### **3. artikulua. Prezio publikoa**

Foru dekretu honen bidez sortu den zerbitzurako prezio publiko bat ezartzen da. Zerga egitate da zerbitzu bat ematea — Gizarte Politiken Saileko foru diputatuaren ebazpen bidez baimendua — erabiltzaile bat aldi baterako egon dadin foru titulartasuneko egoitza plaza batean, titulartasun pribatuko egoitza plaza batetik lekualdatzearen ondorioz, egoitza pribatuak ezintasun aitortua eta egiaztatua duelako erabiltzailea bere instalazioetan artatzeko osasun agintariak COVID-19 birusaren izandako kutsatzeei edo kutsatze posibleei dagokienez emandako araudi eta jarraibideen arabera.

### **4. artikulua. Ordaintzera behartuta dagoen pertsona**

Foru dekretu honetan araututako prezio publikoa ordaintzera behartuta egongo da erabiltzailea erakunde honen mendeko egoitza batera lekualdatzeko baimena eskatu eta lortzen duen egoitza pribatuaren titularra den pertsona juridikoa, Gizarte Politiken foru diputatuaren ebazpen bidez.

### **5. artikulua. Sortzapena**

Prezio publikoaren zenbatekoa erabiltzailea foru egoitzen sareko zentro batean sartzan den egunetik aurrera sortuko da, eta ordaintzera behartuta dauden pertsonen eskatuko zaie. Hilean behin ordainduko da, aldi baterako egonaldian hilabete bakoitzean egondako egun bakoitzeko.

### **6. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa**

Eska daitekeen prezio publikoa 92,51 eurokoa izango da egonaldi egun bakoitzeko.

### **7. artikulua. Kudeaketa, likidazioa eta ordainketa**

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari dagokio foru dekretu honetan adierazten den prezio publikoa kudeatu eta likidatzea, foru aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagozkion eginkizunak eta ahalmenak gorabehera.

2. Hilabetetik beherako egonaldietan prezio publikoa likidatzeko aldia aldi baterako egonaldia amaitzean izango da. Hilabetetik gorako aldi baterako egonaldien kasuan, likidazio aldia hilabete naturala izango da. Bi kasuetan, zenbatekoa amaitu den hileko egun kopuruarekiko proportzionala izango da.

3. Likidazioaren ordainketa prezio publikoa eska daitekeen hilabete naturalaren ondorengo hilabetearen lehen hamar egun naturaletan edo hurrengo egun baliodunean egingo da, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen edozein finantza erakunde laguntzailetan helbideratuta egin beharko da.

4. Artikulu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak eskubidea azkentzea eta zerbitzuan baja ematea ekar ditzake, Arabako Foru Aldundiak kasu zehatzaren berezitasunak egiaztatzeko izan ditzakeen ikuskatze ahalmenen kalterik gabe.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Azken xedapenetako lehenengoa. Ordezko araubidea.

1. Honako foru dekretu honetan berariaz xedatzen ez den guztiari dagokionez, ordezko aplikazioa izango dute Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuei heltzeko foru araudietan jasotzen diren xedapenek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako xedapenek eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritako xedapenek, bai eta arloan aplikagarriak diren eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ere.

2. Araudi hau erabat baldintzatuta dago Foru Dirubilletako Arautegi Orokorra onetsi zuen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuak xedatutakoarekin.

3. Oro har, berariazko araei buruz egiten diren aipamenak, direla Estatuarenak, autonomia erkidegoarenak edo aldundiarenak, arlo horiekin lotuta une bakoitzean indarrean dauden araudien aipamenak izango dira.

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Gizarte Politiken Saileko buruari ahalmena eman zaio foru dekretu hau garatzeko, betearazteko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Azken xedapenetako laugarrena. Argitaratzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko diputatua*

**EMILIO GERMÁN SOLA BALLOJERA**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Finantza eta Aurrekontu zuzendaria*

**EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**